ABUZTUAK 2, LARUNBATA

16.00: Auzoz-auzoko 27. ibilaldia: **OIARTZUNGO SOINU JOTZAILE, TXISTULARI** eta **MUSIKARI** gazteen talde bat ibiliko da auzoz auzo, Xanistebanak hastera doazela iragarriz. *Antolatzailea: Lartaun KJKE elkartea.*

16.30: Xanistebanetako **JOKO GARBIKO 1. TXAPELKETA** Beheko Plazazo pilotalekuan. Oiartzun-Villabona (hiru partida: infantilak, kadeteak, seniorrak). *Antolatzailea: Oiarpe Joko Garbi elkartea.*

17.00: Euskal Herriko **SEGA TXAPELKETA**ren ligaxkaren finala, nazioarteko erara, hilerri ondoko zelaian. *Antolatzaileak: Almintza sega elkartea eta Oiartzungo Udala.*

19.30: Oiartzungo Jai Batzordeak proposatuta, herriaren aldeko lan nekaezinean urte asko eman dituzten **ABEGI** aisialdi taldeko ordezkariek, Oiartzungo alkateak, Udalbatzako beste kideek eta Jai Batzordeko gainontzeko kideek lagunduta, lehen **SUZIRIA** botako dute, eta honek, kanpai-soinu alaitsuekin batera, jaien hasiera adieraziko du.

JARRAIAN Udalbatzako kideek **SOKA-DANTZA** dantzatuko dute Herriko Plazan, Haurtzaro Dantza Taldearen eta txistularien laguntzaz.

JARRAIAN **OIARTZUNGO ERRALDOIEN ETA TXISTULARIEN** kalejira herrian zehar, Cerdanyola-ko erraldoien laguntzaz.

20.30: Euskal Preso eta iheslari politikoen aldeko **BRINDIS**a, Amnistiaren aldeko txosnan: *30 urte errepresiopean. Aski da! Antolatzailea: Amnistiaren Aldeko Mugimenda.*

22.30: **ROCK KONTZERTUA**, Landetxeko Plazan, taldeokin:
- Defoe
- Northayan
- Bon Scott Band

Antolatzaileak: OMTE eta Iurrita

23.00: **ZINEMA GAUEAN**, Madalensoro Plazan. “Hiru mosketariak” filma eskainiko da. *Antolatzailea: Oiartzungo Erraldoein konpartsa.*

23.30: Dantzaldia, **PATXI ETA KONPAINIA** taldearekin, Done Eztebe plazan.

00.30: Jaien hasiera ospatzeko BRINDISa Kataxulo Gaztetxian. *Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia.*

ONDOREN Gauean, Joko Eroa, Kataxulo eta Txosnen inguruan. Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia eta Euskeran Itotiyak.

01.00: Euskal Preso eta Iheslari Politikoen aldeko manisfestazioa eta bideo emanaldia. Antolatzailea: Oiartzungo Amnistiaren Aldeko Mugimendua.

02.00-05.00: **ALKOHOLIMETROAREN ESPERIENTZIA**, Landetxeko frontoian (parkingaren inguruan): autoa hartu auretik egiazta ezazu alkohol gehiegi edan duzun*. Antolatzailea: Udal Prebentzio Kontseilua.*

03.30: **ZOZONGO**k giroa alaituko du kaleetan goizaldea arte.

ABUZTUAK 3, IGANDEA XANISTEBAN EGUNA

07.00: **SOKAMUTURRA**, Beheko Plazan. *Antolatzailea: Ergoiengo Jai Batzordea*.

08.30: **EHIZA ZAKUR LEHIAKETA**, Leuneko Xabalan (Gurutze auzoan). *Antolatzailea: Bizardia Ehiza Kirol Elkartea.*

09.00: **GOIZ ERESTIA**, Lartaun Txistulari Taldearekin.

10.15: **61.XANISTEBAN TXIRRINDULARI SARIA**, 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindularientzat. *Antolatzailea: Lartaun Zikloturistak.*

11.00: **HERRI MEZA NAGUSIA:** Done Eztebe Parrokian. Lartaungo eta Parrokiako abesbatzak mezan parte hartuko dute beren abestiekin. *Organo jotzailea: Joxe Manuel Azkue.*

ONDOREN **KONTZERTU HERRIKOIA**, Kontzejupean, Oiartzungo eta inguruko herrietako txistularien eskutik, Sebastian **MENDIBURU** (1708-1782), **JM GLZ BASTIDA** (1908-1997) eta Pierre **BORDAZAHARRE "ETXAHUN-IRURI**" (1908-1979)-ren oroimenez, beren jaiotzaren mendeurrenean. *Partaideak: Lartaun txistulari taldea, Lartaun abesbatza, Haurtzaro ikastolako eta Elizalde herri ikastetxeko Soinu Zaharren dantza txapeldunak eta Donostialdeako txistulariak. Antolatzailea: Lartaun Txistu Taldea.*

12.00: **POTTOKAK ETA ZEZEN TTIKIAK**, Beheko Plazan. *Antolatzailea: Ergoiengo Jai Batzordea.*

15.30: **27.PLATER TIRAKETA**, Arkaleko zelaian herritar eta bazkideentzat. Sariak beterano, gazte eta emakumeentzat. *Antolatzailea: Lartaun KJKE*.

17.00: Madalensoro Pilotalekuan, Oiartzungo Auzoen arteko **22. SOKATIRA TXAPELKETA.** *Antolatzailea: Artaso Elkartea.*

1700: Euskal Herriko **ERRALDOIEN 9. TOPAKETA**, Oiartzungo herrian zehar, Landetxeko Plazatik abiatuta, Elizalde Trikitixa Eskolaren eta Bretainiako gaita-jotzaileen laguntzaz. *Antolatzailea: Oiartzungo Erraldoien Konpartsa.*

22.00: **ROCK JAIALDIA**, Done Eztebe plazan, honako taldeokin:
- Hi Satelite
- Zea Mays
- Sagarroi

Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia

22.30: **KRESALA** dantza taldearen **SEHASKA** ikuskizuna, Elorsoro kiroldegian. *Antolatzailea: Haurtzaro Dantza Taldea.*

00.30: Gazte Mugimenduaren urteko bideo emanaldia, Done Eztebe plazan. *Antolatzailea: SEGI gazte erakundea.*

ABUZTUAK 4, ASTELEHENA BASERRITAR EGUNA

09.00: **GOIZ ERESTIA**, Lartaun Txistulari Taldearekin.

09.30: Beterriko **18.ARDI GAZTA LEHIAKETA**ren hasiera, Done Eztebe Plazan.artzainen gaztak jasotzea. *Antolatzailea: Intxixu-AEK Euskaltegia.*

10.00: Oiartzungo **13. KALEKO MARGO LEHIAKETA**, Done Eztebe Plazaren inguruan. *Antolatzailea: Margosoro Pintura Akademia.*

10.00: **IDI DEMA**ren lehenengo txanda, hilerrian goiko aldeko plazan. Oiartzungo harria erabiliko da (1.800 kg-koa). 1.000 kg-tik gorako pisua duen idi pare bakoitzak 1,5 kg-ko gain-zama hartu beharko du gainditzen duen kilo bakoitzeko.

11.00: **ZAHARREN EGOITZARAKO BISITALDIA**, Haurtzaro Ikastolako Dantza Taldearekin, txistuarekin eta trikitilariekin. *Antolatzailea: Haurtzaro ikastola*.

12.30: Eguerdiko Beterriko **18. ARDI GAZTA LEHIAKETA**, Done Eztebe plazan. Sari banaketa. *Antolatzailea: Intxixu- AEK Euskaltegia.*

ONDOREN **BERTSOLARIAK**, Done Eztebe Plazan, idi-demaren ondoren. *Antolatzailea: Oiartzungo Bertso Eskola.*

13.30: Oiartzungo **13. KALEKO MARGO LEHIAKETA**ren sari banaketa, Udal Areto Nagusian. *Antolatzailea: Margosoro Pintura Akademia.*

14.00: Oiartzungo Udalak **BAZKARI GOXO BAT ESKAINIKO DIE HERRIKO ERRETIRATUEI**, Gurutze Berri jatetxean, Gazte Izanak eta Done Eztebe Parrokiaren laguntzaz. Ondoren, bertsolariak eta musika izango dira, nahi duenak dantza egin dezan.

17.00: **IDI DEMA**ren bigarren txanda, hilerriaren goiko aldeko plazan.

17.00: Oiartzungo Emakume Taldeak egindako lanekin, **HELDUEN TAILERREN 11. ERAKUSKETA** (margoak, bolilloak, eskulanak, taila, pachwork, altzari.berritzea eta abar), Kontzejupean. *Antolatzailea: Oiartzungo Emakumeen Taldea.*

17.00: Kale animazioa: **TXANOGORRITXU ROCK**, haurrentzako dantzaldia, Done Eztebe Plazan. *Antolatzailea: Elizalde Herrik Eskola.*

17.30: Oiartzualdeko **HAURREN KROSA**: irteera Landetxeko Plazatik.

18.00: Oiartzualdeko **12. HERRI KROSA**: irteera Landetxeko Plazatik. *Antolatzailea: Oiartzungo Erraldoien konpartsa.*

18.15: Helduen ikastaroetako **BERTSO, DANTZA ETA GITARRA TAILERREN SAIOA,** Kontzejupean. *Antolatzailea: Oiartzungo Emakumeen taldea.*

19.30: Euskal Preso eta Iheslari Politikoen aldeko **KARTELADA**. *Etxean eta bizirik nahi ditugu!!! Antolatzailea: Amnistiaren Aldeko Mugimendua.*

19.30: **HERRI KIROLEN JAIALDIA**, Haurtzaro ikastolako plazan. Harri-jasotzaileak eta aizkolariak lanean. Saio honetan, Iñaki Perurenari esker oneko omenaldia egingo dio Oiartzungo herriak*. Antolatzailea Iturri-Berri Elkartea.*

22.00: **TXIRENE** antzerki taldearen **"GEZURRETAZKO PRINTZEA"** antzezlana, udaletxeko areto nagusian*. Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia.*

22.00: **ROCK JAIALDIA**, Kataxulo Gaztetxian, taldeokin:
- Despervicio
- Harrika
- Drakes

Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia.

23.00: Dantzaldia, **LAIOTZ** taldearekin, Done Eztebe Plazan.

23.30: **HELDUEN DANBORRADA**, Oiartzungo kaleetan zehar. *Antolatzaileak: Ergoiengo Jai Batzordea eta Haurtzaro ikastola.*

ABUZTUAK 5, ASTEARTEA GAZTEEN EGUNA

09.00: **GOIZ ERESIA**, Lartaun Txistulari Taldearekin.

09.30: **ZEKORRA ERRETZEN** hasiko dira, Done Eztebe plazan.

13.00: **GAZTE TXUPINAZOA** plazan, gazte guztiak biltzeko. Segidan, kalejira herriko tabernetatik, musikaz lagunduta. *Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia.*

13.30: **ERRALDOIEN KALEJIRA**, Oiartzungo herrian zehar, Landetxeko Plazatik abiatuta.

14.30: Goizean erretako zekorrarekin, **GAZTE BAZKARIA**, Done Eztebe plazan. *Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia.*

17.00: **JOLASAK** taldeka. *Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia*.

17.30: **OIARTZUNGO 6. TRIKITILARI GAZTEEN TXAPELKETA**, Landetxeko plazan. *Antolatzailea: Haurtzaro Trikiti Eskola.*

18.00: **KALEJIRA**, Txarangarekin. *Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia*.

19.00: **18. ARIN-ARIN ETA FANDANGO TXAPELKETA**, gaztetxoentzat, Landetxeko plazan. Bertan Gipuzkoa osoko bikoteak lehiatuko dira. Dantzariak 1994ko urtarrilaren 1aren ondoren jaioak izango dira. *Antolatzailea: Aldeguna Elkartea*.

20.30: Oarsoaldeko eta Donostiako **DULTZAINEROEN ETA DANBOR-JOTZAILEEN** kalejira, herrian zehar. *Antolatzailea: Herri Musika Txokoa*.

23.00: Dantzaldia, **BIDE BATEZ** taldearekin, Done Eztebe plazan.

01.00: **EUSKAL KARAOKEA**, Kataxulo Gaztetxian. Aste guztian 3. piropo lehiaketa izango da Oiartzungo taberna eta txosnetan. *Antolatzailea: Euskeran Itotiyak elkartea.*

ABUZTUAK 6, ASTEAZKENA HAURREN EGUNA

09.00: **GOIZ ERESIA**, Lartaun Txistulari Taldearekin.

10.00: Oiartzungo **HAURREN PILOTA TXAPELKETA HERRIKOIA**ren finalak, Kontzejupean. *Antolatzailea: Oiarpe KE*

11.30: Gaztetxoen **TANBORRADA.** *Antolatzaileak: Ergoiengo Jai Batzordea eta Haurtzaro Ikastola.*

12.30: **KANTU KANTARI**. Kantuzale den guztiak herrik kantuen sorta ederra abesteko aukera izango du herriko kaleetan barrena (herritar guztiak gonbidatuta daude.) *Antolatzailea: Lartaun Abesbatza.*

12.30: **ARKUME ERRETZEA**: *"Arkumea Burduntzian, A Ze Poza Tripan Sartzian*". Done Eztebe plazan herri poteoaren hasiera.

13.30: **ERRALDOIEN KALEJIRA**, Oiartzungo herrian zehar, Landetxeko plazatik abiatuta.

14.30: **ARKUME JATEA**. Bazkalondoa TXARANGAk alaituta. *Antolatzailea: Ardi Latxa elkartea.*

16.00: Xanistebanetako **13. TRUK TXAPELKETA**, Madalensoro pilotalekuan. *Antolatzailea: Munanier Elkartea.*

16.00-20.00: Haurtzaro ikastolako jolastokian, **UME ETA GAZTEENTZAKO PARKEA** (kartak, zezen mugikorrak, goming, Spiderman txirrista, olagarro ozeanikoa eta gaztelu puzgarriak). Den-dena doan, 3 urtetik 14 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat. *Antolatzailea: Haurtzaro ikastola.*

17.15: **ARETO-FUTBOL TXIKIA**, Xanistebanetako 4. Txapelketa: Lhko mutilen finala (8-12 urte), Haurtzaro ikastolan.

18.00: **ARETO-FUTBOL TXIKIA**, Xanistebanetako 4. Txapelketa: Lhko nesken finala (8-12 urte), Haurtzaro ikastolan.

18.45: **ARETO-FUTBOL TXIKIA**, Xanistebanetako 4. Txapelketa: DBHkoen finala (12-16 urte), Haurtzaro ikastolan*. Antolatzailea: Gazte Foroa.*

18.30: Xanistebanetako **PALA TXAPELKETA HERRIKOIA**ren finalak (neskak eta mutilak), Kontzejupean. *Antolatzaileak: Kataxulo Gaztetxia eta Girizia Pilota Saila.*

18.30: Haurrentzako **TXOKOLATADA**, Ikastolako jantokian. *Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola.*

18.30: Oiartzualdeko **14. MARMITAKO TXAPELKETA**, Landetxeko plazan.

ONDOREN Marmitakoa dastatzeko aukera, Landetxeko Plazan, trikitilariak eta Bretainiako gaiteroek alaituta. *Antolatzailea: Oiartzungo Erraldoien Konpartsa*.

19.30: Euskal preso eta iheslari politikoen aldeko **ARETO FUTBOLEKO TXAPELKETA**ren finalak, Haurtzaro ikastolan. *Antolatzailea: Oiartzungo Amnistiaren Aldeko Mugimendua.*

20.00: Bretainiako gaiteroen **MUSIKA JAIALDIA**, Landetxeko plazan. *Antolatzailea: Oiartzun-Karaez Senidetza Batzordea.*

22.00: **ROCK JAIALDIA**, Kataxulo Gaztetxian, taldeokin:
- PKU
- Joxpa

Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia.

23.00: Udal Igerileku inguruan su artifizialen sorta erreko du **ASTONDOA PIROTEKNIA** etxeak.

ONDOREN Elizaldeko kaleetan zehar, **ZEZENSUZKOA** ibiliko da, Lartaun Txistulari Taldeak *Idiarena* doinuz lagundurik.

23.30: **IMUNTZO ETA BELOKI**rekin dantzaldia, Done Eztebe plazan.

23.30: **ZINEMA GAUEAN**, Madalensoro plazan. *"Nomadak TX"* filma eskainiko dute. *Antolatzailea: Oiartzungo Erraldoien Konpartsa.*